

Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (IV)

Mixel Kaltzakorta Mentxaka

Mondragon Unibertsitatea
mixel_kaltzakorta@huhezi.edu

Abstract

Same as in earlier articles, in this one too the author's main objective is to examine a number of texts written in Bizkaian from the point of view of the thematic progression. On the one hand, the author previously looks at the focused elements analysing their features and their position in the sentence (examples taken from four classic writers are given to proof and reinforce his theory); on the other hand, the author studies the conditions in which the law of the thematic progression is broken (the order is changed); and finally, he deals with the thematic progression in subordinate sentences.

Laburpena

Egileak aurreko artikuluetan legez, hemen be nagusiki aztertzen ditu hainbat testu bizkaitarrez idatziak, progresino tematikoaren ikuspegitik aztertu be. Halaber sarturrean jorraten ditu, batetik, zelako foko edo galdegaiak dagozan, bakotzak zelako ezaugarriak dituan eta zeintzuk kokalekutan erabilten direan perpaus barruan (lau idazle klasikoren adibideak be emoten ditu teoriaren frogagarri eta indargarri); bestetik, zelako baldintzetan hausten dan progresino tematikoaren legea (ordenea aldatu) eta, azkenez, progresino tematikoa menpeko perpausetan.

Keywords: theme (topic of discourse), rheme, thematic progression, focus (new information), neutral focus, emphatic focus

Gako hitzak: temea (mintzagaia), remea, progresino tematikoa, fokoa (galdegai), foko informatiboa (neutroa), foko enfatikoa

0. Sarturrea

Aurreko artikuluetan hainbat kontu jorratu ditugu progresino tematikoaren gainean: batetik, progresino tematikoa bera zer dan, zer eskema daukan (tema-remea) eta zelako motak dagozan (progresino lineala/progresino tema berekoa/progresino hipertemaduna); bestetik, tematizau leitekeala edozein osagai edozein daualarik kategoria gramatikal edo sintaktikoa, eta izan leitekeala sinplea ez eze konplexua be bai.

Nahaste handia be badago progresino tematikoan, terminologian egon be. Guk artikulua honeetan temea deiturikoari beste batzuk esaten deitsoe topikoa, eta hori dala-eta, topikalizau eta topikalizatzaile berbak be badagoz (nahiz eta guk ez erabili). Azkenez, badago temea eta topikoa bereizten dauanik be.

Oratu deiogun barrero gaiari. Bazterrak zeresan dago oraindino progresino tematikoaren gainean. Artikulu honetan, besteak beste, lau jorratuko ditugu:

- Zelan tematizau elementuak
- Foko edo galdegai eta motak
- Ordena aldaketea progresino tematikoan
- Progresino tematikoa menpeko perpausetan

Hasi gaitezau lehenengo puntuagaz. Normalean, aurreko artikuluetan ikusi dogunez, elementu

tematizauak huts-hutsik erabili leitekez (temak letra etzunez dagoz emonda):

- Eguraldia primerakoa dago
- Seinei erregaluak egingo deutseguz

Baina batzuetan temak agertu leitekez lagun dabela formularen bat:

- Eguraldiari jagokonez, bihar ona egingo dau
- Seinei jagokela, bihar geratu leitekez ohean

Formulok baltzez adierazo ditugu, eta agirian dagoanez, aditzen bat dabe (jagoko/jagoke) eta atzizkiren bat (-enez/-ela). Jakina, beste formula batzuk be badagoz.

Jorratu daigun bigarren puntua: galdegai (fokoa) eta motak. Orain arte artikulua guztietan ibili gara tema-remea gora eta tema-remea behera, baina badago hirugarren elementu bat be guztiz garrantzitsua (batez be euskerearentzat, desitxurau egin dau-eta euskerearen sintaxia): fokoa edo galdegai. Fokoa perpaus-osagaia da danetan nabarmenena edo relebanteena informazioz. Foko edo galdegai mota bi dagoz:

- Foko informatibo edo neutroa
- Galdegai enfatikoa

Hasi gaitezau galdegai neutroagaz. Egin daigun perpaus bat daukagula, honakoa, berbarako:

- Kepak kristala apurtu dau

Badakigu osagaiak beste ordena batzuetan be agertu leitekezala perpaus barruan testuinguruaren arabera. Konparazinarako:

- Kepak apurtu dau kristala
- Kristala Kepak apurtu egin dau
- Kristala apurtu dau Kepak
- (...)

Baina zelan jakin zein ordenatan dagoan egokien erabilita testuinguruaren arabera? Ingurunean ezagunak badira, esaterako, Kepak zer edo zer apurtu dauala, eta jakin gura izanez gero zer apurtu dauan, honako itauna egin behar da:

Zer apurtu dau Kepak?

Zer galdetzaileari erantzunda lortuko dogu osagairik nabarmenena informazioz, berak dauka balio informatiborik handiena, beste elementuak ezagunak dira-eta. Galdetzaile horretxan erantzuna da foko edo galdegai neutroa (informatiboa). Goiko perpaus interrogatiboaren erantzuna, perpaus osoa erabilita, hurrengoren bat da (egia esateko, agertu leitekez beste hurrenkera batzuk be, baina ez dira pertinenteak hemen):

- Kepak kristala apurtu dau
- Kepak apurtu dau kristala

Fokoa baltzez adierazo dogu, eta perpaus bakoitzean leku banatan dago. Lehenengo erantzunean aditz aurrean dago; bigarrenan, barriz, atzean. Foko-leku biok ondo dagoz: aditz aurrean azken urteotan erabilten da nagusiki (batez be Altubez gero), baina aditz ostean tradizioz agertzen da nagusi, idatziz zein ahoz. Pasa gaitzan beste testuinguru batera, eta bertan, esate baterako, honako itaun-erantzunak daukaguz:

Nork apurtu dau kristala?

- Kristala Kepak apurtu dau
- Kristala apurtu dau Kepak

Galdetzailea aurrekoan ez lakoa da (nork) eta oraingotan be galdegai informatiboa aditz aurrean edo ostean agertzen da erantzunetan. Ikusten dogunez, foko neutroak leku bi ditu.

Laburtzeko, esan leiteke edozein osagai erabilten badogu galdegai neutrotzat, agertu leitekeala aditz aurrean nahi ostean. Orain arte, adibideetan, fokoak bete dabe subjektu eta osagarri zuzen funtzinoak; jarraian, zirkunstantziak osagarri funtzinoak beteko dabez (denporazkoa eta lekukoa):

Kepak kristala **goizean** apurtu du

Kepak kristala apurtu du **goizean**

Kepak kristala **etxean** apurtu du

Kepak kristala apurtu du **etxean**

Bestalde, kontu bi. Bata, edozein sintagma ez eze perpaus osoa be izan leiteke galdegai informatiboa, batez be aurkezpen testuinguruetan:

Zer gertatu da?

- **Kepak kristala apurtu dau**
- **Kepak apurtu dau kristala**

Bestea. Idazle klasikoan idatzietan eta ahozko testu askototan galdegai informatiboa agertzen da aditz osteko lehenengo lekuan ez eze bigarrenan be bai, sarritxo agertu be, baita hirugarrenean be, baina hemen bakarragotan.

Egiaztatu daigun lau idazle klasikotan. Hasi gaitzan analizetan iparraldeko idazle bi onenak, Axular eta Tartas, euron testutxu bana jorratuta (aditzak kortxete barruan sartu ditugu eta foko informatiboak baltzitu):

- Pedro Axular

GERO

Likurgok, [erakusteko] **Lazedemoniakoei**, zein indar handia zuen usantzak, [hartu zituen] **bi xakur gazte**, bi orkume ama batenak eta sabelaldi batekoak: eta haietarik bata, [usatu zuen] beti ere **etxean barrena**, kuzinako eta sukaldeko eltze-plateren artean: eta berriz bertzea [hazi zuen] **kanpoan** ihiziko orekin batean. Eta gero [handitu zirenean] [eraman zituen] biak treila batean **Lazedemoniako jende haien aitzinera** eta han [laxatu eta lagatu zituen], eta lagatzearekin batean, [egotzi zizkien] bere aitzinera, **erbi bat eta haragi puska bat**. Eta ihizian usatua, [abiatur zen] **berehala** erbiaren ondotik, eta berriz bertzea, kuzinan hazia [lotu zitzaion] **haragi puskari**. Eta gero erran zien: [ikusezazu], jaunak, **zer egiten duen usantzak**, zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak, eta ohikundeak: nola or hauetarik bata, bere hazkuntzaren arauz, [lotu zitzaion] **haragiari**, eta berriz bertzea, [jarraiki zitzaion] **ihizari** (Pedro Axular, 1976, *Gero*, L. Villasantek atondua Jakin, Usurbil, 95or)

- Juan de Tartas

SUGEAREN ERRAUTSA

Herioa [da] **andere noblea, galanta, liberala eta maitagarria**. [Edekitzen du] gizonari eta emazteari **bat edo biga edo hirur** edo nahi bazara gehiago, baten [emaiten du] **ehun**, biden mila, hiruren milioi bat, ez daki zenbat. [Edekitzen du] **bitzita korporala eta denborala**, baina [emaiten] **berehala** bitzita espirituala

eta eternala. (...). (Juan de Tartas, *Sugea eta errautsa*, 1999, I. Mugika Iraolak prestatua, Alberdania, Zarautz, 115or.)

Agirian dagoenez, idazleok gehien-gehienetan aditz atzean darabilez galdegai neutroak, eta eurotarik batzuk baita aditz osteko bigarren kokalekuan be.

Pasa gaitezen beste idazle bietara, biak hegoaldekoak, bata bizkaitarra eta bestea giputza, biak idazle klasikorik onenak euren euskalkian: Jose Antonio Mogel eta Juan Bautista Agirre. Hona hemen euren testutxu bana (honeetan be aditzak kortxete barruan doaz eta foko informatiboak baltzez):

- J. B. Agirre

ARPOI BATEN ERAN

[Demagun], kristaua, zure baratza edo berjeran [agertzen dela] **hiru orriko lore guztiz eder bat**. Begirutzen diozu, eta [ikusten duzu] orri bakoitzean [ezarriak daudela] **urrezko letra batzuk**. Lehenengo orriko letrek [diote] era honetan: **Hilak** [pizten ditu]. Bigarren orrikoek [diote]: **Gaitz mota guztiak** [aienatzen ditu]. Hirugarren orrikoek [diote]: [Gorde] ni **ongi**, eta [ez zara] gaixotuko, ez hilko.

Harriturik [geratzen zara] letra hauek diotena irakurri. [Aditzen duzu] [hil dela] **zure adiskide bat**. [Kentzen diozu] **lehenengo orriari pixka bat**, [ipintzen diozu] adiskideari **ezpainetan**, eta [piztutzen da]. Nork esan norainokoa izango litzatekeen orduan zure poza?

[Aditzen duzu] geroago zure auzoan [dagoela] norbait **etsia eta azkeneko arnasetan bezala**. [Hartzen duzu] bigarren orritik **pixka bat**, eta [ematen diozu] eritari, **ardo gutxi batean**. **Ozta** [igaro du] barrera, [geratzen da] **gaitzik gabe eta osotoro sendatua**. **Harriturik eta zer gertatzen zaizun ez dakizula** [geratzen zara]. (J. B. Agirre, Arpoi baten eran, 1996, I. Mujika Iraolak atondua, Alberdania, Zarautz, 19-20or.)

- J. A. Mogel

PERU ABARKA

P. [Heldu gara] bada gabiltzan-gabiltzan, o adiskidea, **neure etxaguntzara**, eta [jakin egizu] [deritxola] **Landeta, landa eder baten** [dagoalako]. Ez da gizon aldi dakigunean, etxe honetara ezkondu mutil harrotz edo beste etxetakorik; belaunik belaun gizon etxeko semeetatik [heldu da] **nigana**; hargaitik ez da aldatu niganaino neure izen ondokotzat etxe honen izena; halan [derist] **Peru Landeta-ko**. [Belutu jaku] **bidean**, baina oraindino ez ziran nire emazte, ume eta otseinak ohera joango. Ez dauke nire usterik gaur gaue(ra)ko. **Zurturik** [geratu dira] nire umeak **zu** [zakusanean], etorri ez ohi dalako hona zu baizen (bezain) gizon apaindurik; [igesi egingo dabe] **zokondoetara kuiak legez**. (J. A. Mogel, *Peru Abarka*, 1990, Adolfo Arejitak prestatua, EEE, 89or.)

Ikusten dogunez, hegoaldeko idazle klasikoak be gehienetan aditz ostean darabile foko neutroa, %80an-edo. Testutxu biotan lau perpaus kompletibo ageri dira eta laurak aditz atzean, eta perpausok ez dira amaitzen atzizki bidez (-ela). Gaur egun egunkarietan perpaus kompletibo bi be irakurri ohi ditugu aditz nagusiaren aurrean. Alkarren muturrean dagoz, batetik, idazle klasiko eta hiztun onak eta, bestetik, gaurko idazle eta kazetariak (atzenengo honeek batez be) perpaus kompletiboen arloan (lehenengo testuak errez-errez irakurten dira -goikoak lekuko- eta bigarrenenak nekez eta penaz, jagoten ez dabelarik progresino tematikoaren legea).

Baina galdegai neutroa aditz ostean erabili, hiztunok be egiten dogu kontu-kontari gabizanean. Hona hemen ahozko testutxu bat abadinotarrez kontaua:

AMERIKARA DIRUAK IRABAZTEN

Gizon bat [joan zan] **Amerikara** diruak irabazten. Eta [topau eban] **lagun bat** berarena. Eta [egon ziran] **despedidu ezinik**. Eta lagunak [esan eutson] **emoten eutsozola hiru kontseju**. Lehenengo [esan eutsan] ba: **inoren gauzetan ez sartzeko**; bigarrena: atajutik ez joateko; hirugarrena: jakin barik gauza ez berotzeko. Despedidu ziran eta [joan zan] **etxe batera** eskatzen ostatua.

[Topau eban] **gizon argal bat** eta [ikaratu egin zan] eta [urten ebanean] **etxe hartatik** segidu egin eutson eta [preguntau egin eutson] zer deritxon beraren bizimoduari. Eta lehenengoz [akordau zan] **Amerikako lagunagaz**, emon eutson kontsejoagaz, eta erantzun eutson: -Ez naz inoren gauzetan ni sartzen. Orduan gizon argalak kontestau eutson: -Eskerrik asko. Gero [joan zan] **aurrera** beraren etxerantz eta [topau eban] **atajoa** eta [pentsau eban] **handik joatea**. [Ikusi ebalako] **gizon bat** joaten astoaren ganean. Baina **gehiago** [pentsau] eta [joan zan] **beraren bidean**. [Ailegau zanean] **atajora** [topau eban] **medikua eta abadea**. Egin eutson segidu eta [topau ebanean] **ia ilean, astoaren ganean** [joan zan] gizona. Han [akordau zan] **beraren lagunaren bigarren kontsejoagaz**. (Joskera: Esaldi bakuna. Ikasgaiak eta Ariketak (203or.) Bizkaia: Abadiño.)

Harrigarria da ahozko testu hori be. Hiztunak aditza aurrera be aurrera darabil eta galdegai ia beti aditz ostean, aditzari inkauta edo bigarren lekuan. Argi dago alderatuz gero, batetik, gaurko euskera idatzia eta, bestetik, idazle klasiko eta hiztun zaharrena, orokorrean eta galdegai neutroaren arloan, alkarren antipodetan dagozala: goiko testuok beteten dabe, ondo bete be, progresino tematikoaren legea; gaurko testuotan, ostera, gatxa be gatxa da topetan testu bat progresino tematikoa errespetetan dauana, errezago topauko gendukelarik orratz bat lastotzan.

Ikusi dogularik zer dan galdegai neutroa eta zer kokaleku daukan perpausean, jorratu daigun zer dan foko enfatikoak eta zer leku hartzen dauan perpausean. Ondo ulertzeko zer dan ez dago gauza hobarik adibide batzuk emotea baino eredugarri eta argigarri (eurotan galdegai enfatikoak letra larriz dagoz adierazota):

- (1) NEUK apurtu dot kristala (eta ez Kepak)
 HORRETXERI tokau jako loteria (eta ez hari)
 BILBON bizi da Kepa (eta ez Donostian)

Galdegai enfatizauok honako ezaugarriak dabez:

- Aditz aurrean doaz (ia beti)
- Azento enfatikoak darabile (beti)
- Marka gramatikalen bat darabile izenordainetan (-*eu-*) eta erakusleetan (-(*t*)*xe-*) (Lehenengo tasuna bizkai euskeraz erabilten da eta bigarrena euskalki guztietan)
- Kontrastiboak dira, hau da, oposizioan dagoz beste zer edo zeregaz, ukatzen dabe beste zer edo zer, esaterako, (1) perpausetan foko enfatizauak ukatzen dabez parentesi barruko elementuak (*Kepak / hari / Donostian*)

Ikusi daigun zelako formak hartzen dabezen izenordain eta erakusle enfatizau batzuk (NOR kasuan deklinauta):

-NEU	-HORIXE
-HEU	-HAXE
-ZEU	-HAUXE
-ZEUEK	-HORREETXEK
(...)	(...)

Erakusle eta izenordainok enfatizauak ez direanean forma arruntak hartzen dabez:

-NI	-HORI
-HI	-HA
-ZU	-HAU
-ZUEK	-HORREEK
(...)	(...)

Forma arruntok ezezkako perpausetan erabilten dira sarrien-edo:

- (2) *Nik* ez dut kristala apurtu
Horreri ez jako tokau loteria

Esandakotik ez da segitzen ezezkako perpausetan bakarrik erabilten direala forma arruntak; izan be, erabili leitekez forma indartu edo enfatizauak be:

- (3) NEUK ez dut apurtu kristala (eta ez Koldok)

HORRETXERI ez jako loteria tokau (eta ez Koldori)

Bestalde, nor edo nork esan leike fokoak ez eze temak be lehenengo lekuan erabilten direala. Eta halantxe da izan, baina temak ez dira enfatikoak. Esaterako, goiko adibideetako fokoak bihurtu ditugu tema (letra etzunez) hurrengo perpausetan:

- (4) *Nik* kristala apurtu dot
Horreri loteria tokau jako
Bilbon Kepa bizi da

Perpausetan, temarean gainean zer edo zer esaten da (rema), informazinoren bat emoten da, eta remearen barruan dagoz galdegai neutro edo informatiboak (*kristala, loteria eta Kepa*):

TEMAK	REMAK
[Nik]	[kristala apurtu dot]
[Horreri]	[loteria tokau jako]
[Bilbon]	[Kepa bizi da]

Normalean, remak informazino barriak dira. Baina (1)en ezin esan hiru perpausetan fokoan gainean berba egiten dala, hau da, galdegai enfatikoari buruz informetan dala. Gainera, foko ostean informazinoak ezagunak dira, rematikoak:

Bestalde, perpaus berean jazo leitekez batera temea (letra etzunez) eta foko enfatikoak (letra larriz):

- (5) *-Atzo* NEUK apurtu neban kristala (eta ez Kepak)

-Herenegun HORRETXERI tokau jakon loteria (eta ez hari)

-Kepa BILBON bizi da (eta ez Donostian)

Aztertu daigun ordena aldaketea (inbersioa) progresino tematikoan. Noiz hausten da tema-rema hurrenkerea eta erabilten da alderantzizko ordena (rema-temea)?. Argitu daigun adibidez, (1)eko adibideak hona ekarrita:

- (1) NEUK apurtu dot kristala (eta ez Kepak)
 HORRETXERI tokau jako loteria (eta ez hari)
 BILBON bizi da Kepa (eta ez Donostian)

Ondo erreparauz perpauson ordeneari, eta jakinda galdegaia rema osoa edo zati bat dala, honako hurrenkerea dauke goiko hiru perpausok:

<u>REMA</u> (fokoa)	<u>TEMA</u>
NEUK	apurtu dot kristala
HORRETXERI	tokau jako loteria
BILBON	bizi da Kepa

Argi dago inbertidu egin dala ordenea, hautsi. Horretarako, erabili behar da foko enfatikoa, baina galdegai mota hori erabili hutsagatik ez da segitzen beti hausten danik progresino tematikoaren ordenea (ikus (5)eko adibideak).

Galdegai enfatikoak testu askotan agertu be ez dira egiten. Bistaratu ditugun idazle klasikoen testuetan eta ahozko testu abadinotarez idatzian ez dago garaurik be, eta artikulua honetako eta aurreko hiruretako testu aztertuetan be ez dago, oker ez banago. Ikusten dozunez, irakurlea, bakarretan agertzen dira galdegai enfatikoak idatziz; fokoak, gehien-gehienak, neutro edo informatiboak erabilten dira, eta ez enfatikoak. Eta gu hemen eta gaur gabiltza temauta-obsesionauta, beharizan barik, orain bai eta gero be bai aditz aurrean erabilten beti galdegai guztiak (enfatikoak eta neutroak, laburrak zein luzeak), traizinoa egiten deusogula tradizioari (ahozkoari nahi idatzizkoari) eta testuak bihurtu nekezak eta penazak irakurteko.

Laugarren puntutzat jorratuko dogu zelan erabilten dan progresino tematikoa menpeko perpausetan. Esan leiteke perpausotan beteten dala progresino tematikoaren legea. Hona hemen adibide batzuk:

1. Irratian entzun dot *gizon batek* andrea hil daua
 - o Tema2: gizon batek
 - o Rema 2: andrea hil dau
2. Berogailua biztu dot *amak* eskau deustalako
 - o Tema2: amak
 - o Rema2: eskatu deust
3. Herritar gehienak uste dabe *Barne ministroa* guzurretan dabilela
4. Aitortzen dau *gaztetan* txarto bizi izan zala

Menpeko perpausetan foko enfatikoa be agertu leiteke. Hona hemen adibide bi:

- A. Entzun dot RAXOIk daukala krisiaren errua (eta ez Zapaterok)
 - o Fokoa. Raxoi
- B. Nik esan deusut ZEUK biztuteko berogailua (ez Kepak)
 - o Fokoa: zeuk

Irakurlea, kontu asko geratzen dira azterkizun arlo barri honetan (progresino tematikoa). Seguru gagoz zer asko dagoala idazteko euskeraz, hortxe daukagu-eta euskaldunok hutsunerik mandoena, galantena.

1. Testuak artezten

Artikulu honetan aurrekoetan legez, testutxuak arteztu edo zuzenduko ditugu, zazpi. Batzuetan gure zuzenketarik gurena edo nahiena be emongo dogu

1.1. 1. testua

Kirmen Uribek Espainiako Narratiba Saria jaso dau

Bilbao-New York-Bilbao liburuagaitik emon deutse saria. Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak 20.000 euroko sari hau.

Titulua ondo dago, guk uste, errespetetan dau-eta progresino tematikoaren ordenea: temea (*Kirmen Uribek*)-rema (*Espainiako Narratiba Saria jaso dau*). Testuari jagokonez, lehenengo perpausetan saria berbeak emoten dau dala temea (loturea be egiten dau-eta tituluagaz) eta gainerako informazioa remea:

- Tema2: saria
- Rema2: *Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik emon deutse

Tema2 eta rema2 horreek testuan ez dabe beteten progresino tematikoaren legea, alderantziz dagoz ordenaz:

[*Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik emon deutse] [saria]

- o Rema2: *Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik emon deutse
- o Tema2: saria

Ezin errezago artezten da, progresino tematikoak zelako ordenan eskatzen dituan elementuok (T2-R2), halantxe emonda:

[Saria] [*Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik emon deutse]

Baina ondo erreparauta lehenengo perpausari, saria emon deutse esan edo saria jaso dau, bardina da. Osterantzean esateko, emon deutse eta jaso dau bardinak dira. Bestela esateko, emon deutse be informazio tematikoa da. Horrenbestez, honan geratzen da lehenengo perpausa arteztuta:

[Saria emon deutse] [*Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik]

- Tema2: Saria emon deutse
- Rema2: *Bilbao-New York-Bilbao* liburuagaitik

Ez da ahaztu behar temearen eta remearen artean etentxua egiten dala intonazioz. Pasa gaitezcan bigarren perpausera:

- Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak 20.000 euroko sari hau.

Perpau horretan zer osagaik egiten dau kohesinogile lehenengo perpausagaz eta tema3 da? *Sari hau* osagarria (azkenengo lekuan). Hortaz, atzekoz aurrera dago progresino tematikoa bigarren perpau horretan:

- [Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak 20.000 euroko] [sari hau].

[Rema3a + rema3b] [Tema3]

- Rema3a: Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak
 - Rema3b: 20.000 euroko
 - Tema3: sari hau

Argi dago rema3a-ren barruan beste tema-remak batzuk dagozala, baina laster askatuko dogu marapilo hori. Sekuentziau daigun egoki bigarren perpausa, lehenengo ipinita tema3-a eta gero rema3-b (hemen rema2b-ri -a artikulua gaineratu jako):

- a) [Sari hau] [Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak 20.000 eurokoA].

Rema3 hori, bigarren kortxeteko informazioa, hobeto sekuentziau beharra dago, hau da, progresino tematiko hobea emon behar jako. Hasteko, esan dogunez, bertan rema bi dagoz:

- Rema3a: Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak
- Rema3b: 20.000 euroko

Berridatzi daigun bigarren perpausa (rema3 barruan, lehenengo ipinita rema3b-a eta gero rema3a-a, ordena hori egokiago da-eta):

- b) [Sari hau] [20.000 eurokoa da ETA Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso Espainiako Kultura Ministerioak].

Rema3 horren barruan (bigarren kortxetea), *eta* juntagailuaren ostean, hurrenkera hobean emon behar da informazioa, jakinda bertan zein dan tema4-a eta zein rema4-a:

- Tema4: Espainiako Kultura Ministerioak
- Rema4: Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso

Orain kokau daiguzan egoki perpausan tema4 eta rema4 horreek (baltzez tema4-a):

- c) [Sari hau] [20.000 eurokoa da ETA **Espainiako Kultura Ministerioak** Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala eretxita emon deutso].

Baina rema4 hori (informazio baltzaren ostean) hobetu beharra dago hurrenkera aldetik. Rema4 horretan zein oinarriko eta beharrezko zatik egiten dau loturea tema4-agaz?: *deutso*-k. Horrenbestez, eroan daigun *eretxita emon deutso* aurrerago (baltzez) eta atzean emon daigun gainerakoa:

- d) [Sari hau] [20.000 eurokoa da eta Espainiako Kultura Ministerioak **eretxita emon deutso** Estaduan ofiziala dan hizkuntza batean idatzitako lanik onena dala].

Azken aldaera hori (d) errezago irakurten da jatorriko bigarren perpausa baino, baina are errezago irakurri leiteke aitaturiko gainerako informazioa emonez gero progresino tematiko hobean. Hona hemen hiru era hobeto sekuentzietako informazio hori:

- (d1) [Sari hau] [20.000 eurokoa da eta Espainiako Kultura Ministerioak emon deutso eretxita **EstaduKO** hizkuntza ofizial batean idatzitako lanik onena dala].

- (d2) [Sari hau] [20.000 eurokoa da eta Espainiako Kultura Ministerioak emon deutso eretxita **lana** idatzitakorik onena dala Estaduko hizkuntza ofizial batean].

- (d3) [Sari hau] [20.000 eurokoa da eta Espainiako Kultura Ministerioak emon deutso eretxita **lana/lan hori** onena dala Estaduko hizkuntza ofizial baten idatzitako ETAN].

1.2. 2. testua

Gazako egoera salatzeke mozinoa onartu dabe

Zinegotzi guztiak mozinoaren alde agertu ziren

Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra salatzen dauen eta Palestinari elkartasuna erakusten deutsan mozinoa aurkeztu eben Udalean. Udalbatzarra osatzen daben alderdi eta zinegotzi guztiak alde bozkatu eben.

Lehenengo tituluan aldatu beharra dagoz osagai batzuk ordenaz; izan be, progresino tematikoak bestelako hurrenkerea agintzen dau (Tema-Remea):

- Tema: (hareek)
- Remea: **Gazako egoera salatzeke mozinoa onartu dabe**

Temeak ez dau subjektu lexikorik (*hareek*), baina islatuta dago aditz laguntzailean (*dabe*). Reman aldatu batzuk egin behar dira, eta honetara geratu leiteke titulua:

- **Mozinoa onartu dabe Gazako egoera salatzeke**

Aditzetik bertatik be hasi leiteke, kontuan hartuta bizkai euskeraz arrunta dala (esaterako: *dino bihar ez doala beharrera*), baita iparraldean be. Hortaz, eroan daigun aurrera aditza (**Onartu dabe mozinoa Gazako egoera salatzeke**).

Bigarren titulua ondo dago dagoan bestean, guk uste, ondo beteten dau-eta progresino tematikoaren legea. Pasa gaitezkan testura, non perpaus bi dagozan, lehenengoa honako hau dala:

Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra salatzen dauen eta Palestinari elkartasuna erakusten deutsan mozinoa aurkeztu eben Udalean.

Kontuan hartuta lehenengo eta bigarren tituluko informazioak, zer elementu da tema lehenengo perpaus horretan? Gure ustez: *mozinoa*. (gai honen gainean dihardu perpausaren gainerako informazioak eta, aldi berean, gai horretxek egiten dau loturea bigarren tituluagaz). Tema1 horrek rema bi daukoz:

- Rema1a: Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra salatzen dau eta Palestinari elkartasuna erakusten deutsa
- Rema1b: Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek aurkeztu eben Udalean

Kontuan hartuta tema-remok, honako eskemea dauka lehenengo perpausak:

[Rema1b + Rema1a] + [Tema1]

Jakina, eskema hori atzekoz aurrera dago-eta, ezin leiteke perpausa natural-normal irakurri. Bestalde, jakinda zein dan progresino tematikoaren eskemea (Tema1 + [Rema1a + Rema1b]), hainbat eratarata taxutu leiteke perpausa. Hona hemen bat (gainean eskemea ipini dogu):

Tema1 + [Rema1b + Rema1a]

Mozinoa Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek aurkeztu eben Udalean ETA Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra salatzen dau eta Palestinari elkartasuna erakusten deutsa.

Apur bat arindu leiteke, lehenengo aditz biak -baltzez- aurreratuta (edo bestela esateko, atzera eroanda sintagma luzeak):

Mozinoa **aurkeztu eben** Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean eta **salatzen dau** Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta Palestinari elkartasuna erakusten deutsa.

Guk beste operazinotxu bat be gustora egingo genduke azken esaldian, *Palestinari* berbea (balio informatibo txikia dau-eta) atzen lekura eroanda (... *eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari*).

Beste operazino bi be egin leitekez *-ela(rik)* menderagailuaren bidez:

- Mozinoa aurkeztu ebe**LA(RIK)** Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean, salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari.
- Mozinoa aurkeztu eben Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean, eta salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra, elkartasuna erakusten deutsa**LA(RIK)** Palestinari.

Beste operazino bat be egin leiteke, tema NOR kasuan barik NORKen erabilita, eta hiru baliabidez baliatuta:

- ETA juntagailua
 - Mozinoak, ETA hau aurkeztu eben Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean, salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari.

- ELA(RIK) menderagailua
 - Mozinoak, (hau/berau) aurkeztu ebeLARIK Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean, salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari.
- ZEINISMOa (zein -en/bait-)
 - Mozinoak, ZEIN(A) Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek aurkeztu ebeN Udalean, salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari.
 - Mozinoak, ZEIN(A) aurkeztu ebeN Karmen Amezua, Gorka Kamara eta Aitor Zumelaga zinegotziek Udalean, salatzen dau Israelek Gazan daroan ofentsiba militarra eta elkartasuna erakusten deutsa Palestinari.

Oratu deiogun testuko bigarren perpausari eta aztertu:

Udalbatzarra osatzen daben alderdi eta zinegotzi guztiek alde bozkatu eben.

Perpaus horretan be berba egiten da *mozinoaren* gainean, zeina islatuta dagoan aditz laguntzailean (*eben*). Beraz, aurrerengo eroan behar dogu aditza, eta beragaz batera *alde* berbea:

Alde bozkatu eben udalbatzarra osatzen daben alderdi eta zinegotzi guztiek

Jakina, aditzetik bertatik be hasi leiteke:

Bozkatu eben alde udalbatzarra osatzen daben alderdi eta zinegotzi guztiek

Esaldi batean zein bestean subjektua azkenengo dago, leku horretan bakarretan erabili ohi dalarik perpaus luzeetan. Euskeraz, normalago darabilgu *osatu* aditza barik, honan:

Bozkatu eben alde udalbatzarEKO alderdi eta zinegotzi guztiek

1.3. 3. testua

Badator Euskaltzaindiak argitaratu eta Bernardo Atxagak zuzenduko dauen 'Erlea' kultur aldizkari barria

'Erlea' kultur aldizkari barria aurkeztuko dabe eguenean Donostiako Kursaal, 11:30etan. Aldizkaria Euskaltzaindiak argitaratuko dau eta Jose Irazu 'Bernardo Atxaga' idazle eta euskaltzain osoa da zuzendaria. Pamiela argitaletxea arduratuko da edizinoaz eta diseinuaz.

Arduradunek jakinarazo dabenez, 'Erlea' aldizkaria Euskaltzaindiak abian jarri dauen egitasmoa da eta Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea dau helburu. Literatureagaz lotutako aldizkaria da eta lau hilebetz behin argitaratuko da, Bernardo Atxagaren zuzendaritzapean.

Hasi gaitzan titulutik, nekez irakurten da-eta; izan be, temeak (*Erlea*) aurretik dau lehenengo remea (*Euskaltzaindiak argitaratu eta Bernardo Atxagak zuzenduko dau*) eta ostan bigarrena (*kultur aldizkari barria*). Lehenengo remea temearen atzera eroan behar da aposiziotzat erabilirik:

- Badator 'Erlea', Euskaltzaindiak argitaratu eta Bernardo Atxagak zuzenduko dauen kultur aldizkari barria

Beste aldaketa batzuk be egin leikez:

- Badator 'Erlea' **kultur aldizkari barria**, Euskaltzaindiak argitaratu eta Bernardo Atxagak zuzenduko dauena
- Badator 'Erlea' kultur aldizkari barria, Euskaltzaindiak argitaratuko **dauena** eta Bernardo Atxagak zuzendu

Bigarren eta hirugarren aukeretan erlatibo apositihoa (*-ena*) darabilgu. Guk hirugarrena dogu guren, nahien (progresinorik onena dauka), baina *eta* juntagailua be erabili leiteke:

- Badator 'Erlea' kultur aldizkari barria, ETA Euskaltzaindiak argitaratuko dau eta Bernardo Atxagak zuzendu

Zeinismoa be erabili leiteke:

- Badator 'Erlea' kultur aldizkari barria, ZEIN(A) Euskaltzaindiak argitaratuko dauAN eta Bernardo Atxagak zuzendu
- Badator 'Erlea' kultur aldizkari barria, ZEIN(A) Euskaltzaindiak argitaratuko BAITau eta Bernardo Atxagak zuzendu

Orain oratu deiogun testuari berari, lehenengo paragrafoari: ondo dago, baina badago orraztutxu bat egiterik lehenengo perpausean, leku sintagman (*Donostiako Kursaaalen*), sintagma bakarretik bi eginda (beti be progresino tematiko hobe egiteko):

DonostiaN, Kursaaalen

Gainerako perpaus biak ondo dagoz dagozan-dagozanean, guk uste. Igaro gaitezkan bigarren paragrafora, eta oratu lehenengo perpausari:

Arduradunek jakinarazo dabenez, 'Erlea' aldizkaria Euskaltzaindiak abian jarri dauen egitasmoa da eta Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea dau helburu.

Hor erlatiboa (*Euskaltzaindiak abian jarri dauen*) alperrik dago, informazioa atzekoz aurrera ipinten dau-eta:

Euskaltzaindiak abian jarri dauen egitasmoa

- Remea: Euskaltzaindiak abian jarri dau
- Temea: egitasmoa

Badakigunez, progresino tematikoaren arabera, alderantziz egon beharko liriteke ordenaz tema-remak. Zelan jokau hori lortzeko? Hona hemen era bi desegiteko:

- Arduradunek jakinarazo dabenez, Euskaltzaindiak abian jarri dau 'Erlea' aldizkaria Ø eta Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea dau helburu.
- Arduradunek jakinarazo dabenez, Euskaltzaindiak abian jarri dau 'Erlea' aldizkaria EGITASMOTZAT eta Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea dau helburu.

Lehenengoan *egitasmo* berbea pikutara bota dogu (pentsauz gero sobran dagoala); bigarrenean berba bera NORTZAT kasuan dago deklinauta (usterik beharrezkoa dala).

Erreparau, irakurlea, aldaera batean zein bestean transizino txarra dagoala lehenengo perpausetik (*'Erlea' aldizkaria Euskaltzaindiak abian jarri dau (EGITASMOTZAT)*) bigarrenera (*Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea dau helburu*), eta hortaz, hobetu beharra dagoala progresino erdipurdiko hori. Zelan? Aurrera eroanda *helburu dau* hitz-katea:

- Arduradunek jakinarazo dabenez, Euskaltzaindiak abian jarri dau 'Erlea' aldizkaria egitasmotzat eta HELBURU DAU Akademiaren eta kultur gintzearen arteko loturea sendotzea.

Perpaus bien artean zorroztu leiteke gehiago saltua (transizino, progresino tematikoa); izan be, hor tema-remak bat dago atzekoz aurrera:

- Temea: loturea
- Remea: Akademiaren eta kultur gintzearen arteko

Tema-remok bestera emon behar dira ordenaz (eta horrenbestez, *arteko* bihurtzen da *artean*):

Arduradunek jakinarazo dabenez, Euskaltzaindiak abian jarri da 'Erlea' aldizkaria egitasmotzat eta helburu dau **loturea** sendotzea Akademiaren eta kultur gintzearen arteAN.

Erreparau, irakurlea, aurreratu egin dogula tema (*loturea*) eta atzeratu remea (*Akademiaren eta kultur gintzearen artean*). Bestalde, gomutau daigun sinonimotzat erabilten direala "helburu dau" eta "helburutzat dau". Holako perpausetan *helburu* berbea, berezko ahozkoan, oker ez bagagoz, ez da inon erabilten. Hona adierazoten dogu, guk behintzat:

- Arduradunek jakinarazo dabenez, Euskaltzaindiak abian jarri da 'Erlea' aldizkaria (egitasmotzat), eta (HOLAN) sendotu GURA/NAHI DAU loturea Akademiaren eta kultur gintzearen arteAN.

Testuan, atzen perpausa be gehiago orraztu leiteke progresino tematikoaren aldetik:

Literatureagaz lotutako aldizkaria da eta lau hilebetez behin argitaratuko da, Bernardo Atxagaren zuzendaritzapean.

Hona hemen soluzino batzuk progresino hobe egiteko:

- Aldizkari HAU literatureagaz DAGO lotuta da eta lau hilebetez behin argitaratuko da, **zuzendaria dauala Bernardo Atxaga**.
- Aldizkari HAU, literatureagaz lotua, lau hilebetez behin argitaratuko da, **zuzendaria dauala Bernardo Atxaga**.

Aldaera horreetatik honeetara ez dago alde handirik:

- Aldizkari hau literatureagaz dago lotuta da eta lau hilebetez behin argitaratuko da, **zuzendariTZAT dauala Bernardo Atxaga**.
- Aldizkari hau, literatureagaz lotua, lau hilebetez behin argitaratuko da, **zuzendari__ dauala Bernardo Atxaga**.

Perpauseko sekuentzia bat, "lau hilebetez", emon leiteke beste era bitara be bizkai euskeraz, jatorrizkoa baino normalagoak (*lau hilebetetik* eta *lau hilebeterik*).

Hona hemen zelan emongo geunkean testu osoa:

Badator 'Erlea' kultur aldizkari barria, Euskaltzaindiak argitaratuko duena eta Bernardo Atxagak zuzendu

'Erlea' kultur aldizkari barria aurkeztuko dabe eguenean Donostian, Kursaal, 11:30etan. Aldizkaria Euskaltzaindiak argitaratuko dau eta Jose Irazu 'Bernardo Atxaga' idazle eta euskaltzain osoa da zuzendaria. Pamiela argitaletxea arduratuko da edizinoaz eta diseinuaz.

Arduradunek jakinarazo dabenez, 'Erlea' aldizkaria Euskaltzaindiak abian jarri da egitasmozat eta helburu dau loturea sendotzea Akademiaren eta kultur gintzearen artean. Aldizkari hau, literatureagaz lotua, lau hilebetz behin argitaratuko da, zuzendaria dauala Bernardo Atxaga..

1.4. 4. testua

Gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak omendu ditu Bilboko Udalak

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Egunaren harian, Bilboko Udalak gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak omendu gura izan ditu eta udaletxeko Arabiar Aretora batu diran andereñoi esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.

Titulua gura badogu errezago irakurri, jaramon egin behar deusagu progresino tematikoari, eta perpausa hasi tematik (*Bilboko Udalak*). Horren arabera, hona hemen lau aukera:

- Bilboko Udalak gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak omendu ditu
- Bilboko Udalak omendu ditu gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak
- Bilboko Udalak omendu ditu lehenengo andereñoak, gerra osteKOAK BilboN
- Bilboko Udalak omendu ditu Bilboko lehenengo andereñoak(,) gerra osteAN

Aukera horreetan edozein aukeratuko genduke, lehenengoa izan ezik (bertan aditza urrunegi egiten da). Pasa gaitez testura, perpaus bakarrez osatua. Hemen zati bat aukeratuko dogu:

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Egunaren harian, Bilboko Udalak gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak omendu gura izan ditu

Ospakizuna (omentzea) hiru sintagmaz dago ondo enmarkauta (*Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Egunaren harian*). Edozelan be, “-en harian” hori itsasotik harako arraina da, arrain erdaldua eta beharizanik barik erabilia euskeraz. Zelan adierazo artez? Ez dogu horren orde esaten, batzuok behintzat, “*Euskerearen Nazinoarteko Eguna dela eta*”? Bestalde, zergaitik ez eroan galdegai sintagma luzea (*gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak*) aditz ostera errezago irakurteko?

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta, Bilboko Udalak omendu gura izan ditu **gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak**

Hona hemen horren eskemea, kontuan hartuta sintagma enmarkatzaileok be temak direala:

TEMAK (T1a+T1b+T1c+T1d)

- Tema1a: Gaur
- Tema1b: abenduak 3
- Tema1c: Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta
- Tema1d: Bilboko Udalak

REMA (R1)

- Rema1: omendu gura izan ditu **gerra osteko Bilboko lehenengo andereñoak**

Rema1-en barruan beste tema-remak bat dago, baina alderantziz erabilia:

- Tema2: **andereñoak**
- Rema1a: **gerra osteko**
- Rema1b: **Bilboko**
- Rema1c: **lehenengo**

Ikusten danez, rema txiker lartxo dagoz eta danak ezkerretara, euren beharrezko lekuetatik kanpo (temaren ostea), progresino tematikoaren kontra. Zelan konpondu? Zergaitik ez erabili hurrengoetatik bat?

- lehenengo andereñoak gerra osteAN BilboN
- lehenengo andereñoak BilboN, gerra osteAN
- lehenengo andereñoak jardun ebenak gerra osteAN, BilboN
- lehenengo andereñoak eskolak emon ebenak BilboN, gerra osteAN
- andereñoak, lehenengo eskolak emon ebezanak BilboN, gerra osteAN
- Bilboko lehenengo andereñoak gerra osteAN
- andereño lehenengo eskolak emon ebezanak BilboN(,) gerra osteAN

Bosgarrena aukeratuko dogu aurrera egiteko, eta beragaz osatu perpausa:

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta, Bilboko Udalak **andereñoak** omendu gura izan ditu, [lehenengo eskolak emon ebazanak BilboN(,) gerra osteAN]

Orain (perpaus horretan ondo dagoala tema-remak kontua) gaineratu deiogun perpausaren bigarren zatia:

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta, Bilboko Udalak **andereñoak** omendu gura izan ditu, lehenengo eskolak emon ebazanak Bilbon gerra ostean, eta udaletxeko Arabiar Aretora batu diran **andereñoi** esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.

Badirudi lehenengo parteak hobeto dagoala (halan dago progresino tematikoaren aldetik), errezago irakurten dala. Orain bigarren parteari (*eta* juntagailuaren ostean) oratu behar deusogu eta arteztu:

(...) eta udaletxeko Arabiar Aretora batu diran **andereñoi** esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.

Hor, *andereñoi* esanda, badakigu zeintzuk direan, identifikatuta dagoz aurreko informazioa dala-eta. Hortaz, *andereñoi* horrek alperrik dauka informazio osagarria aurretik (*udaletxeko Arabiar Aretora batu diran*), kargeari egiten daukala, progresino tematiko txarra eragiten. Dalako informazio osagarri hori erabili daigun *andereñoi*-ren atzetan:

- (...) eta **andereñoi**, **udaletxeko Arabiar Aretora batuTA**, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.
- (...) eta **andereñoi**, **udaletxeko Arabiar Aretora batu direLA(RIK)**, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.

Guk geuk gurago dogu *andereñoi* barik *andereñoi* edo *andereño HORREI*. Bestalde, *udaletxeko Arabiar Aretora* zati bitan be emon leiteke:

- (...) eta **andereñoi**, **udaletxeAN**, Arabiar Aretora batuta, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez.

Hor badago sekuentzia bat, azkena (*Bilbon euskerearen alde egindako lanaren esker onez*) badaukana zer zuzendu progresino tematikoaren aldetik. Hona hemen urtenbide bat (era bitara emonda):

- (...) eta **andereñoi**, **udaletxeko Arabiar Aretora batuTA**, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, **esker onAK EMOTEKO Bilbon egindako lanAREN GATIK euskerearen alde**.

- (...) eta **andereñoi**, **udaletxeAN**, Arabiar Aretora batuTA, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, **esker onez Bilbon egindako lanaren GATIK euskerearen alde**.

Lehenengoak hobea begitantzen jaku bigarrena baino. Testuaren parte biak bat eginda, hona hemen (aukera bat) zelan geratzen dan:

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta, Bilboko Udalak **andereñoak** omendu gura izan ditu, lehenengo eskolak emon ebazanak Bilbon(,) gerra ostean, eta **andereñoi**, **udaletxeAN**, Arabiar Aretora batuta, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, **esker onak emoteko Bilbon egindako lanaren gatik euskerearen alde**.

Birritan dago erabilia *andereño* berbea. Bigarrenean ordezkatu daigun erakusle bidez:

Gaur, abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna dala-eta, Bilboko Udalak **andereñoak** omendu gura izan ditu, lehenengo eskolak emon ebazanak Bilbon(,) gerra ostean, eta **EUROI**, **udaletxeAN**, Arabiar Aretora batuta, esku-erakutsia emon deutse Iñaki Azkuna alkateak eta Ana de Castro Euskera Saileko zinegotziak, **esker onak emoteko Bilbon egindako lanaren gatik euskerearen alde**.

1.5. 5. testua

EHNEk dino esne ekoizleen arazoa ez dela laguntza bidez konponduko

Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak kritikatu ditu Euskal Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE). Benetan sektoreari lagundu gura badeutso politika “ausarta” egitea eskatu dau nekazarien sindikatuak.

Europako Nekazaritza arduradunak 280 milioi euroko diru-laguntzak iragarri ditu, asteon. Hala be, diruaren banaketa herrialde bakoitzaren produzinoaren arabera egingo balitz, EHNEk salatu dauenez, Hego Euskal Herriko abeltzain batek ez leuke 450 euro baino gehiago jasoko. Diru hori, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi baten egun bateko elikaduraren kostua dela nabarmendu dau. Sindikatuak gogoratu dau “hemen, diruagaz konpontzen ez den merkatu arazo larria” dago.

Titulua ondo dago, guk uste (errez irakurten da hasten dalako temearen bidez (EHNE), ondorik dauala aditza (dino) eta gero gainerako remea. Tituluan *laguntza* berbea erabilten da espezifikau barik zelakoa dan. Goazen testura, lehenengo perpausera:

Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak kritikatu ditu Euskal Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)

Perpau horrek -sano penaz irakurten da- atzen lekuan dauka temea (gomutau daigun elementu honen ganean, batetik, ari dala gainerako informazioa perpausan, eta, bestetik, aldi berean, loturea egiten dauala tituluagaz): “*Euskal Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)*”. Tema horren aurretik dago gainerako informazioa, remea. Zergaitik ez ipini tema-remok progresino tematikoak agintzen dauan ordenan (tema-remea)?

[Euskal Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)]
[Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak kritikatu ditu]

Perpaua holantxe be nekez irakurten da; izan be, aditzak (azkenengo lekuan) aurrean ditu NORK eta ZER osagai luzeak. Arindu daigun zama hori, emon deiogun progresino tematiko hobia perpausari. Hona hemen zelan (aditza aurreratuta):

[Euskal Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)]
[**kritikatu ditu** Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak]

Galdegaia, batez be luzea bada, arrunt-arrunt erabili izan dabe aditz atzean idazle klasikoak, eta hiztunik

onenak kontu kontari. Bestalde, ZER sintagma

[Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak]

nekeza egiten da irakurteko, atzekoz aurrera daukalako informazioa, progresino tematikoaren aurka (rema-tema ordenan dago eta beharko leuke tema-rema hurrenkeran egon). Sintagma horretan, tema-remok honakook direala

- Remea: Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako
- Temea: diru-laguntzak

zelan eratu osagai biok tema-rema hurrenkeran? Aposizino bidez, bai behinik behin:

- [Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)] [kritikatu ditu diru-laguntzak, Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarriAK]
- [Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)] [kritikatu ditu diru-laguntzak Europako Nekazaritza komisarioak iragarriAK **esne ekoizleendako**]

Galdegaia aditz aurrean erabili zaleak badauke aukera hori:

- [Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)] [**diru-laguntzak** kritikatu ditu, Europako Nekazaritza komisarioak iragarriAK esne ekoizleendako]

Azkenez, lehenengo perpau horrek, nire ustez, badauka beste aldaera bat askoz hobia:

- [Herriko Nekazarien Elkartek (EHNE)] [Europako Nekazaritza komisarioa kritikatu du, iragarritako **diru-laguntzENGAITIK** esne ekoizleendako]

Goazen bigarren perpausera, aurrean ipini dogula temea parentesi barruan:

(Europako Nekazaritza komisarioak) Benetan sektoreari lagundu gura badeutso politika “ausarta” egitea eskatu dau nekazarien sindikatuak

Hor *sektorea* berbeak balio informatibo txikia dauka (badaukagu berorren barri), eta hobeto da pasetan badogu baldintza ostera, ondoren dauala komea:

(Europako Nekazaritza komisarioak) Benetan lagundu gura badeutso **sektoreari**, politika “ausarta” egitea eskatu dau nekazarien sindikatuak

Koma ostean, temea subjektua da (*nekazarien sindikatuak*): erabili daigun aurrerengo, buruan. Bestalde, temearen ostean informazio bi dagoz lehian lehenengo lekurako:

- eskatu dau
- politika “ausarta” egitea

Biotan zeinek egiten dau loturea temeagaz? Argi dago, guk uste, “*eskatu dau*” sekuentziak egiten dauala (*dau* barik erabiliz gero *deutso*, argiago egongo litzateke). Beraz, badakigu zelan osatu perpausa:

[(...)*nekazarien sindikatuak*] [eskatu dau/deutso politika “ausarta” egitea]

Bigarren perpausa, osorik, honan geratuko litzateke:

(Europako Nekazaritza komisarioak) Benetan lagundu gura badeutso sektoreari, nekazarien sindikatuak eskatu dau/deutso politika “ausarta” egitea

Guk beste operazino bat be egingo genduke (*eskatu* aditzak testuinguru horretan eskatzen dau *egitea* barik *egiteko*):

(Europako Nekazaritza komisarioak) Benetan lagundu gura badeutso sektoreari, nekazarien sindikatuak eskatu dau/deutso politika “ausarta” egitea**KO**.

Goazen hirugarren perpausera:

Europako Nekazaritza arduradunak 280 milioi euroko diru-laguntzak iragarri ditu, asteon.

Diru-laguntza berbea ezaguna danez, eta horren gainean dihardugunez, hau da, temea danez, zergaitik ez erabili aurrerengo?

[Diru-laguntzak], [280 milioi eurokoAK iragarri ditu, asteon, Europako Nekazaritza arduradunak].

Aldaera horretan, ohi ez legez, subjektua atzen ipini dogu, ez da-eta temea; izan be, informazino ezaguna danez, balio informatibo txikia dauka. Oratu deiogun hurrengo perpausari:

Hala be, diruaren banaketa herrialde bakoitzaren produzinoaren arabera egingo balitz, EHENEK salatu dauenez, Hego Euskal Herriko abeltzain batek ez leuke 450 euro baino gehiago jasoko.

Ez dago, esateko, txarto, baina ederto baten ipini leiteke aldatutxu bat eginda:

Hala be, dirua bana**TUKO** balitz herrialde bakoitzaren produzinoaren arabera, EHENEK salatu dauenez, Hego Euskal Herriko abeltzain batek ez leuke 450 euro baino gehiago jasoko.

Zer egin dogun? Bihurtu dogu sekuentzia bat, estilo nominallean emona (*diruaren banaketa herrialde bakoitzaren produzinoaren arabera egingo balitz*) estilo berbaleko (*dirua bana**TUKO** balitz herrialde bakoitzaren produzinoaren arabera*), eta holan askoz errezago irakurten da. Heldu deiogun ondorengo perpausari:

Diru hori, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi baten egun bateko elikaduraren kostua dela nabarmendu dau

Ondo dago hasita perpausa, *Diru hori* bidez, baina aditza (*nabarmendu dau*) azkenengo dago, irakurketa nekagarria eragiten dauala. Eroan daigun aditza aurrera, era bitara:

- Diru hori, **nabarmendu dau**, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi baten egun bateko elikaduraren kostua dela
- **Nabarmendu dau** diru hori, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi baten egun bateko elikaduraren kostua dela

Biak antzekoak dira, baina egokiago-edo dago lehenengoa. Hortik joko dogu, eta hasiko gara orraztuak egiten:

- Diru hori(XE), nabarmendu dau, d**AU**Ala kostua, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi baten egun bateko elikadura**K**
- Diru hori(XE), nabarmendu dau, d**AU**Ala kostua, batez beste, **egun bateko elikadura**K**** 80 behi daukazen ustiategi baten
- Diru hori(xe), nabarmendu dau, dauala kostua, batez beste, egun bateko elikadurak ustiategi baten 80 behi daukaza**LA**
- Diru hori(xe), nabarmendu dau, dauala kostu(**tzat**), batez beste, egun bateko elikadurak ustiategi baten 80 behi daukazala.

Operazinootan, bat nabarmendu behar da: fokalizau egin dogu, halan egokiago dagoalakoan, *hori* erakuslea, -xe marka gramatikala gaineratuta (holantxe erabiltzen dogu oraindino askotxok fokalizauta dagoala adierazoteko).

Oratu deiogun atzen perpausari:

Sindikatuak gogoratu dau “hemen, diruagaz konpontzen ez den merkatu arazo larria” dago.

Analizau daigun perpaus hori progresino tematikoaren aldetik:

- Tema1: Sindikatuak
- Rema1: gogoratu dau “hemen, diruagaz konpontzen ez den merkatu arazo larria” dago
- Tema2: merkatu arazoa
- Rema2a: larria
- Rema2b: diruagaz konpontzen ez den

Agirian dagoanez, rema2a-ren atzetik dago tema2-a (eta aurretik beharko leuke, errezago irakurteko). Horretarako, hausi daigun erlatiboa (-en) eta *eta* juntagailua erabili:

Sindikatuak gogoratu dau “hemen merkatu arazo larria” dagoela ETA (hori) ez da diruagaz konpontzen.

Azken aldaeran beteten da progresino tematikoaren araua.

1.6. 6.testua

‘Euskaltzaindia, ekin eta jarrai’, istoriakaz historia egiten da

Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren harian, Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak erakundearen ganeko ikuspegi orokorra eskaintzen dauen 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua aurkeztu dabe, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak azaltzeko.

Alde batera lagata titulua (arteza deritxogu), oratu deiogun testuari, lehenengo informazioari (komaraino):

Euskaltzaindiaren 90. urteurrenaren harian,

Egitura hori itsasotik harako arraina da, labatik harako ogia (*harian* hori arrotza jako euskereari), eta erderatik dago hartuta, beharizan barik. Batzuoak behintzat (edo gehienok) honetara adierazoten dogu eguneroko berbetan:

- **-Euskaltzaindiaren 90. urteurrena DALA-ETA,**
- **-EuskaltzaindiaK 90. urte BETE DITUALA-ETA,**

Heldu deiogun hurrengo informazio aztergaiari:

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak erakundearen ganeko ikuspegi orokorra eskaintzen dauen 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua aurkeztu dabe.

Azken lekuan dagoala aditza (*aurkeztu dabe*), penaz irakurten da. Eroan daigun aurrerago, subjektu ostera:

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak **aurkeztu dabe** erakundearen ganeko ikuspegi orokorra eskaintzen dauen 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua.

Segitzen dogu normal eta natural irakurri barik; izan be, erreferenteak (*'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua*), izen propioa da-eta, alperrik dauka kargea egiten aurretik erlatiboa (*erakundearen ganeko ikuspegi orokorra eskaintzen dauen*). Eroan daigun atzera erlatibo hori erlatibo apositibo (*-ena*) eran:

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, **erakundearen ganeko ikuspegi orokorra eskaintzen dauenA.**

Baltzeko informazio horretan egin leiteke beste orraztutxu bat, bertako izen sintagman lehenengo ipinita temea (*ikuspegia*); eta, ondoren, batetik, lehenengo remea (*orokorra*) eta, bestetik, bigarren remea (*erakundearen ganean*):

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, **ikuspegi orokorra eskaintzen dauenA erakundearen ganeAN.**

Gaineratu deiogun enparau informazioa:

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, **ikuspegi orokorra eskaintzen dauenA erakundearen ganeAN,** besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak azaltzeko.

Erlatibo apositiboa (*-ena*) barik erabili leikez beste baliabide batzuk be:

- ZEINISMOA

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, **ZEINAK** ikuspegi orokorra eskaintzen dauen erakundearen ganean, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak azaltzeko.

- -eLA(RIK) menderagailua

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ikuspegi orokorra eskaintzen dauen **LARIK** erakundearen ganean, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak azaltzeko.

- ETA juntagailua

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ETA ikuspegi orokorra eskaintzen dau erakundearen ganean, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak azaltzeko.

Bestalde, testutxu horretan azken zatia hobetu leiteke, errezago emon, progresino tematiko egokiago

erabili, aurrerago eroanda *azaltzeko* berbea (azkenengo lekuan):

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ikuspegi orokorra eskaintzen dauena erakundearen ganean, **AZALTZEKO**, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera egin asmo dituanak.

Atzenengo lekuko informazioa be (*hemendik aurrera egin asmo dituanak*) erreztu leiteke, zehar-galdera bihurtuta (jakina, testuinguruak eskatzen daualako):

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ikuspegi orokorra eskaintzen dauena erakundearen ganean, *azaltzeko*, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta hemendik aurrera ZERTZUK egin asmo dituan.

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ikuspegi orokorra eskaintzen dauena erakundearen ganean, *azaltzeko*, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta ZERTZUK egin asmo dituan **hemendik aurrera**.

Jakina, ZERTZUK hori batzuo erabilten dogu bakarrik, bizkaia euskeran bakarrik. Uste dogu honan egingo leukeela beste batzuek:

Joan Mari Torrealdai (Foru, 1942) euskaltzainak eta Imanol Murua (Zarautz, 1966) kazetariak aurkeztu dabe 'Euskaltzaindia, ekin eta jarrai' liburua, ikuspegi orokorra eskaintzen dauena erakundearen ganean, *azaltzeko*, besteak beste, erakundea zer dan, zer egin dauen orain arte, zertan dabilen orain eta ZEINTZUK GAUZA egin asmo dituan **hemendik aurrera**.

1.7. 7. testua lar luzea-eta, atzera

Safet Bijelic: arteaz, artisautzaz, bizitzaz Kultura

Santa Ana plazako Nualan Gunean salgai dagoz Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi den Safet Bijelic artistaren lanak. Metalaren langintzaz egin deusku berba, besteak beste.

Tilulua ondo dagoalarik, oratu deiogun testuan lehenengo perpausari:

Santa Ana plazako Nualan Gunean salgai dagoz Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi den Safet Bijelic artistaren lanak.

Zer osagai da temea? Zer elementuk egiten du loturea tituluagaz? Badirudi "Safet Bijelic" dala, baina adjektibo eta guzti erabiliko dogu, "Safet Bijelic artista". Hona hemen, hortaz, zeintzuk tema-remak dagozan lehenengo perpausan:

- Tema1: Safet Bijelic artista
- Rema1a: haren lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean salgai dagoz
- Rema1b: Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi da

Agirian dagoanez, atzekoz aurrera dago progresino tematikoa perpausan, temearen aurrean dagoz-eta rema biak (Salbo rema1a-ko "haren lanak" zatia). Horrexegaitik irakurten da nekez eta penaz perpausa. Horren kontra badakigu zelako edabea erabili, progresino tematikoaren eskemea (lehenengo, temea; bigarren, remea):

- ETA juntagailua
- (a) Safet Bijelic artista Kroazian jaio DA eta azken hamar urteetan Durangon bizi da, ETA bere lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean salgai dagoz .
- -ENA erlatibo apositiboaren bidez
- (b) Safet Bijelic artistaK, Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi danA, salgai DITU lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean.
- -ELA(RIK) menderagailuaren bitartez
- (c1) Safet Bijelic artistaK, Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi DALA(RIK), salgai ditu lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean.
- (c2) Safet Bijelic artistaK, Kroazian jaio DALA(RIK) eta azken hamar urteetan Durangon bizi Ø, salgai ditu lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean.
- ZEINISMOAREN (zein bait-/en) bidez
- (d) Safet Bijelic artistaK, ZEIN(A) Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi danN, salgai ditu lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean.
- (d2) Safet Bijelic artistaK, ZEIN(A) Kroazian jaio danN eta azken hamar urteetan Durangon bizi Ø, salgai ditu lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean.

Lehenengo aukerak alde ustel bat dauka: birritan agiri da *eta* juntagailua (ahoz arrunta da). Bigarrena gehien erabilten da gaur, baina alderdi ustel bat dauka progresino tematikoaren aldetik: erlatibo apositibodun sekuentziak, luzea dalarik, lar urrun dauka aditza eta semaforoa (*danA*). Guk guren edo nahien ditugu (c2) eta (d2), euren bidez egiten da-eta progresinorik perfektoena (eta holan lortu irakurketarik errezena). Akats bat be dauke: gitxi erabilten dira gaurko euskera gazbakoan. Lehenengo perpausa honan geratzen da

progresino tematikoaren aldetik, egin beharrezko arteztuak eginda:

[Tema1] + [rema1a + rema1b]

- Tema1: Safet Bijelic artista
- Rema1a: Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi da
- Rema1b: salgai ditu lanak Santa Ana plazako Nualan Gunean

Ohar bi. Bata: "artista" berbea, izatez, ez da temea, ezpabere, remea; bi: rema1a-n azpirrema bi dagoz (*Kroazian jaio (da)* eta *azken hamar urteetan Durangon bizi da*). Praktikotasunagaitik jokatu dot holan, ustez argiagi jokatzearren.

Bestalde, NON sintagma (*Santa Ana plazako Nualan Gunean*) ez dago egoki taxututa progresino tematikoaren aldetik, eta hobetu leiteke sintagma bi eginda:

Santa Ana plazaN, Nualan Gunean.

Testuan badago beste perpaus bat be, bigarrena:

Metalaren langintzaz egin deusku berba, besteak beste.

Dagoanean laga leiteke, baina, gura izanez gero, transizioa hobea egiteko lehenengo perpausagaz (hau da, progresino tematiko hobea), beste aukera bi dagoz:

- Egin deusku berba metalaren langintzaz, besteak beste.
- Egin deusku berba, besteak beste, metalaren langintzaz,.

Dagoan testuinguruan dagoala, nire ustez, hobeto dago perpausa honan hasita:

- Berba egin deusku ...

2. Konklusioak

Lau artikulu honeetan helburutzat gura izan dogu oinarritzko teoria emon zelan sekuentzia informazioa. Hori lortzeko, kontzeptu barri bat kaleratu dogu, *progresino tematikoa* dalakoa, unibertsala berau, hizkuntza guztientzat baliagarria, zeinaren arabera ordenetan dan modu logikoan informazioa, danok errez eta berez ulertu daigun mezua.

Zer sakondu asko dago arlo barri honetan, baina aztertu eta ikasiz gero arteztu ditugun testutxu guztiak lau artikuluotan, pauso handia emongo genduke gaurko euskera motroilo eta mordoilo hau zuzentzeko.

Gaur egun egiten ditugun akatsak arrazoi birengaitik egiten ditugu: batetik, galduz goaz euskerazko erreferentziak (eta hortaz, erderatik ekarri behar); bestetik, euskerea ustez jagiago edo jasoago egin guran, erderea imitetan dogu maila gramatikalean (gaztelaniaz zelako egiturea -erlatiboa, kasu-, euskeraz be halakoxea

-erlatiboa-; erderaz izen sintagma luzea eta dotorea (baina beteten dauala progresino tematikoaren legea), euskeraz be sintagma luzea, baina birrinduta progresino tematikoa), eta abar. Erderea imitau egin behar da, horixe imitau behar dala!, baina maila gramatikalean barik informatiboan, non, esan dogunez aurrerago, hizkuntza guztietan elementuak hurrenkera bardinean edo bardintsuan erabilten direan (tema-remea).

Ez gara kargutzen hizkuntza desbardinak direala euskerea eta gaztelerea, eta ezin txertau bataren ezaugarriak besteari. Katuak ezin dira txakur bihurtu bazterrak operazino egin arren: horixe berori gabiz egiten euskereagaz, barrutik, euskeratik bertatik ahalegindu beharrean dotoreago eta jantziago egiten, kanpotik jantzi gura dogu, zelan egiten dan erderaz, halantxe, euskerearen hondagarri, galgarri.

Amaitzeko, Kardaberazek esan eban Jaungoikoak euskerea salbau gura dauala, baina horretarako, behar egin behar euskaldunok.

3. Bibliografia

- Alberdi Larizgoitia Xabier; Sarasola Errazkin Ibon. (2001). *Euskal estilo libururantz*. EHU.
- Alberdi, X.; Garcia, J. (1996). <<Zein (...) bait-/n>> *egitura*, in I. Zabala (koord.) (1996).
- Aznar Eduardo; Cros Anna; Quintana Lluís. (1991). *Coherencia textual y lectura*. Barcelona, ICE/HORSORI.
- Beaugrande, Robert-Alain de; Wolfgang Ulrich Dressler. (1972). *Introducción a la lingüística del texto*, Barcelona, Ariel, 1997.
- Brown G., Yule G. (1993). *Análisis del discurso*. Visor Libros.
- Bosque, I.; Gutiérrez-Rexach, J. (2009) *Fundamentos de sintaxis formal*. Madrid. Akal
- Calsamiglia, Helena; Amparo Tusón. (1999). *Las cosas del decir*, Barcelona, Ariel.
- Euskaltzaindia. (1993). *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (Mendeko Perpausak-I). Euskaltzaindia. Bilbo.
- Euskaltzaindia-Jagon Saila. (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo. Euskaltzaindia.
- Hidalgo, B. (2002). *Hitzen ordena esaldian*. Senez 25. zb.
- Hidalgo, B. (2006). *Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi*. Hizpide 59. zb.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (1997). *Norbaiten edo zerbaiten berri ematen*. Administrazioa Euskaraz, 15, 16-17.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*: Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Mitxelena, K. (1992). *Orotariko Euskal Hiztegia (V)*. Euskaltzaindia.

- Moeschler, Jacques eta Reboul, Anne. (1999). *Diccionario enciclopédico de pragmática*. Arrecife Producciones, Madrid.
- Larringan, L. M. (1998). << Testuaren analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean>> in I. Idiazabal/L.M. Larringan *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. EHU Arabako Foru Aldundia. Gasteiz-Vitoria.
- Larringan, L.M. (2000). *Hizkuntzaren kalitatea*. Ikastaria 11 (Eusko Ikaskuntza). 65-75.
- Larringan, L.M.; Idiazabal, I. (2005). *Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologikoa*. Ikastaria 14 (Eusko ikaskuntza). 9-29.
- Portolés J. (2004). *Pragmática para hispanistas*. Edit. Síntesis.
- Rodríguez T.M. (2005). *Manuel de sintaxis del español*. Madrid. Castalia.
- Rubio, J. (2002). *Euskararen garabideak*. Alberdania.
- Sainz Matilde. (2001). *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia. Erein.
- Simone Raffaele. (1993). *Fundamentos de Lingüística*. Barcelona. Ariel Lingüística.
- Zabala, Igone (koord.). (1996). *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.